

Ibilgailu elektrikoaren erabilera suspertzeko mozioa. Horretarako, Zeberriko udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga araupetzen duen udal ordenantza fiskala aldatuko du.

Mundu mailako klima-aldaketaren aurrean eta garraio eta mugikortasun arloan karbono isurtzea murrizteko asmoz, tokiko administrazioak garraio publikoa sustatu behar du eta, era berean, barneko konbustioko ibilgailuen ordez, gutxiago kutsatzen duen ibilgailu baten eskuraketa suspertzea. Erakunde publiko guztietatik ibilgailu elektrikoaren aldeko politikak ezartzeko beharra dago, horrek energia-eraginkortasuna hobetu, gas kutsakorren isurpenak murriztu eta petrolioarekiko menpekotasuna murriztu egiten duelako. Testuinguru honetan berebiziko garrantzia hartzen dute energia berriztagarriek, batez ere, bertan aurki ditzakegunak.

Ibilgailu elektrikoaren erabilera klima-aldaketa moteltzen laguntzen du, gas kutsakorren isurtzea txikiagotuz, baita gizakiaren osasuna hainbeste kaltetzen duen kutsadura akustikoa murriztuz ere. Azken urteotan ibilgailu elektrikoaren eskuraketa ikaragarri handitu da, hiritarrek ibilgailu mota horren aldeko apustu garbia egiten duten seinale. Administrazioek ere lan egin behar dute helburu horren alde eta, zentzu horretan, erraztasunak eman horrelako ibilgailu bat eskuratu nahi duenari.

Horregatik guztiatik Zeberriko Udaltzari honako hitzarmena proposatzen diogu:

- 1- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga araupetzen duen udal ordenantza fiskala aldatzea, zerga ordaintzeko orduan, ibilgailu elektrikoak %80 arteko hobaria egiteko eta hibridoak %50 artekoak.
- 2- Herrian egin beharreko lanetan edo azpiegitura berriak egitean, ibilgailu elektrikoaren bateriak betetzeko guneak sortu.
- 3- Eraikuntza, instalazio eta lanen gaineko zerga araupetzen duen udal ordenantza fiskala aldatzea hoberi batzuk txertatzeko, betiere, garaje komunitario edo pribatuetan ibilgailu elektrikoaren bateriak betetzeko guneak sortzen direnean.
- 4- Ibilgailu elektrikoaren erabilera suspertzeko kanpainak aurrera eramane.

5- Zerga tarifa taula honen arabera eskatuko da:

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota/cuota
A) Turismoak/turismos	
8 zerga-zaldi baino gutxiago De menos de 8 caballos fiscales	20 euro
8-11,99 zerga-zaldi De 8 hasta 11,99 caballos fiscales	54 euro
12-13,99 zerga-zaldi De 12 hasta 13,99 caballos fiscales	108 euro
14-15,99 zerga-zaldi De 14 hasta 15,99 caballos fiscales	160 euro
16-19,99 zerga-zaldi De 16 hasta 19,99 caballos fiscales	216 euro
20 zerga-zaldi baino gehiago De 20 caballos fiscales en adelante	277 euro

Guztira 4500 euro gehiago jasoko lituzke udalak, proposatutako deskontuak egiteko-edo. En total, unos 4500 euros más recibiría el ayuntamiento, más que de sobra para realizar las bonificaciones propuestas.

Beste ibilgailu batzuk/Otros vehículos

Potentzia eta ibilgailu mota	Kuota
125cc arteko motozikletak Motocicletas gasta 125c.c.	7 euro
125 cc baino gehiagotik 250cc arteko motozikletak Motocicletas de mas de 125 hasta 250 c.c.	14euro
250cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak Motocicletas de mas de 250 hasta 500 c.c.	28euro
500cc baino gehiagotik 1000 cc arteko motozikletak Motocicletas de mas de 5000 hasta 1000 c.c.	60euro
1000cc-tik gorako motozikletak Motocicletas de mas de 1000c.c.	127euro